Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Mikel Urdangarin Abasolo

Gasteiz, Araba (1971)



Aurkibidea

Biografia



Zornotzan jaioa. Ikastolan ikasi zuen. Kantautorea da. Bertsolari moduan hasi zen, baina bere ametsa abeslaria izatea zen: isilpean ikasi zuen gitarra jotzen eta halaxe atera zuen bere lehen diskoa ere, 1997an: *Haitzetan*. Handik hona lan mordoa plazaratu ditu, gehienak arrakastatsuak. Urdangarinek 20 urte baino gehiago daramatza Gasteizen bizitzen. Kupela izeneko taberna dauka bertan. Musikari eta tabernari lana uztartzen ditu.

Zintak

GAS-015

- **Proiektua**: Gasteizko Euskararen Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Data**: 2015-06-17
- **Iraupena**: 71 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Odria, Haizea

Pasarteak

1. Ikastola, euskaraz ikasteko modu bakarra

- **Erref**: GAS-015/004
- **Iraupena**: 0:02:18. **Hasi**: 00:03:47. **Bukatu**: 00:06:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:
Umetan Zornotzako Andra Mari ikastolan ibili zen. Sasoi hartan euskaraz ikasteko modu bakarra zen. Kaleko giroa nahasiagoa zen: ikastetxe erlijiosoetan edo publikoetan ikasten zutenak gazteleraz ikasten zuten.

2. Txikitan Gasteizen bizi izan zen

- **Erref**: GAS-015/005
- **Iraupena**: 0:02:38. **Hasi**: 00:06:05. **Bukatu**: 00:08:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
25 urtera arte bizi izan zen Zornotzan. Jaio eta gutxira, aitaren lanbideagatik, Gasteizera joan ziren bizitzera. 5-6 urte eman zituzten han eta gero berriz bueltatu ziren Zornotzara. Orduko oroitzapen batzuk baditu, ikastolakoak batez ere. Ikastolaz aldatzearen "traumatxoa" ere gogoan du.

3. Bertsolaritzatik kantagintzara jauzia

- **Erref**: GAS-015/007
- **Iraupena**: 0:02:37. **Hasi**: 00:09:22. **Bukatu**: 00:11:59
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Bertsolaritzarako zaletasuna ikastolan etorri zitzaion, maisu batek irakatsitako bertso zaharrei esker. Geroago Jon Lopategi bertsolaria klaseak ematera joan zitzaien. Bertsolaritzan hasi baina musikaren bidea hartu zuen geroago Mikelek.

4. Kantuan nola hasi zen

- **Erref**: GAS-015/008
- **Iraupena**: 0:02:28. **Hasi**: 00:11:59. **Bukatu**: 00:14:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:
Nerea Zuloaga santutxuarrarekin hasi zen kantuan. Bi urtez ibili ziren, batez ere iparraldeko kanta zaharrak abesten. Mikelek bere kabuz bide berriari ekitea erabaki zuen eta gitarra jotzen ikasten hasi zen. Horrela atera zuen bere lehen diskoa, erdi ezkutuan egindako prozesu baten emaitza.

5. Lehenengo diskoaren arrakasta

- **Erref**: GAS-015/009
- **Iraupena**: 0:01:38. **Hasi**: 00:14:27. **Bukatu**: 00:16:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:
'Haitzetan' (1997) diskoa Arkaitz Estiballesekin batera ekoiztu zuen eta harrera oso ona izan zuen. Horren atzetik etorri zen 'Badira hiru aste' (1998) diskoa eta Bizkaitik kanpo kontzertuak ematen hasi ziren.

6. Gasteizera irakaskuntzagatik etorri eta musikagatik gelditu

- **Erref**: GAS-015/010
- **Iraupena**: 0:02:19. **Hasi**: 00:16:05. **Bukatu**: 00:18:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Olabide ikastolan lana atera zitzaiolako joan zen Gasteizera bizitzera. Ordurako bertako mugimendu kulturalak erakartzen zuen eta bazituen lagunak ere Gasteizen. Bi urtez ingeleseko irakasle gisa aritu zen ikastolan. Asko gozatu zuen haur txikiekin lan egiten, baina hori ez zela bere lekua eta musikari dena eman behar ziola sentitzen zuelako utzi egin zuen.

7. Proiektu artistikoak elkarlanean

- **Erref**: GAS-015/012
- **Iraupena**: 0:03:03. **Hasi**: 00:19:20. **Bukatu**: 00:22:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia

Laburpena:
Gasteizen bazituen lagunak Mikelek eta batez ere gau giroan ateratzen ziren proiektu berrietarako ideiak. 'Espilue' (2000) diskoak sekulako arrakasta izan zuen, baina Mikelek nahita eten egin zuen inertzia hori, Bingen Mendizabal eta Kirmen Uriberekin bide berriak arakatzeko. 'Bar Puerto' (2001) eta 'Zaharregia, txikiegia agian' (2003) izan ziren elkarlanean sortutako bi disko-liburuak.

8. Gasteizera iritsitakoan euskaldun sentitu zen han ere

- **Erref**: GAS-015/013
- **Iraupena**: 0:01:27. **Hasi**: 00:22:23. **Bukatu**: 00:23:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Mikel bigarrenez Gasteizera iritsi zenean, euskarak bazeukan bere presentzia Gasteizen. Ez zuen sentitu hiri erdaldun batera heldu zenik, euskaldun sentitu zen Gasteizen.

9. Gasteiztar sentitzen da Mikel

- **Erref**: GAS-015/017
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:28:16. **Bukatu**: 00:29:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

Laburpena:
Gasteiztar sentitzen da Mikel, batez ere sortu duen harreman sarean gustura sentitzen delako. Euskara ere presente egon behar da bera bertan eroso egoteko. Iritsi zenean eskuzabaltasuna topatu zuen Gasteizen.

10. Gasteizen euskaraz bizi al daiteke?

- **Erref**: GAS-015/019
- **Iraupena**: 0:01:29. **Hasi**: 00:29:40. **Bukatu**: 00:31:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Mikel saiatzen da bere eskura dagoena egiten euskaraz bizitzeko. Egia da Gasteizen euskaldun izateak ahalegina eskatzen duela eta batzuetan nekagarria da.

11. "Konplexuz betetako euskaldun bat sekulako tragedia da"

- **Erref**: GAS-015/020
- **Iraupena**: 0:03:18. **Hasi**: 00:31:09. **Bukatu**: 00:34:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua

Laburpena:
Euskararen kontrako jarrera gutxitu egin dela iruditzen zaio. Hala ere, gaur egun euskaldunon etsairik handiena geure burua da. Konplexuz betetako euskaldun bat sekulako tragedia da, Mikelen ustez.

12. Musikaren bidez euskaldundu

- **Erref**: GAS-015/022
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:36:25. **Bukatu**: 00:38:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:
Jende askok eskerrak eman izan dizkio bere kantei esker euskarara hurbildu delako. Musikak sekulako boterea du.

13. Ikasi euskaraz baina gozatu gazteleraz?

- **Erref**: GAS-015/023
- **Iraupena**: 0:02:41. **Hasi**: 00:38:45. **Bukatu**: 00:41:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Euskararen erabilera sustatzeko, hezkuntza beharrezkoa da, baina euskaraz sentitzen irakastea oso zaila da, eta horretan musikak lagundu dezake. Askotan gaztetxoek euskaraz ikasten dute baina gazteleraz disfrutatu eta hori erroz aldatu behar da, Mikelen ustez.

14. Garrantzitsua da etorkinek euskaraz bizi den toki batera datozela sentitzea

- **Erref**: GAS-015/024
- **Iraupena**: 0:02:18. **Hasi**: 00:41:26. **Bukatu**: 00:43:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Jatorri aniztasun handia dago Gasteizen. Oso garrantzitsua da kanpotik datorrenak euskaraz bizi den toki batera datorrela sentitzea. Askotan etorkinak gaztelerazko heziketara bideratzen dira eta horrek etorkizunerako borroka bat dakar ume horientzat.

15. Euskara batua eta euskalkia erabiltzen ditu

- **Erref**: GAS-015/026
- **Iraupena**: 0:01:23. **Hasi**: 00:45:37. **Bukatu**: 00:47:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:
Batua eta euskalkia bakoitza noiz erabiltzen duen kontatzen du.

16. Euskararekin lotuta, Eskozian gertatutako anekdota barregarria

- **Erref**: GAS-015/028
- **Iraupena**: 0:03:48. **Hasi**: 00:47:25. **Bukatu**: 00:51:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
Euskararekin lotuta, Eskozian gertatutako anekdota barregarria.

17. Tabernako mundu magikoa

- **Erref**: GAS-015/031
- **Iraupena**: 0:04:19. **Hasi**: 00:54:58. **Bukatu**: 00:59:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

Laburpena:
Gasteizko 'Kupela' taberna dauka Mikelek. Idealizatuta dauka tabernako giro magikoa. Lagun arteko txoko euskaldun eta musikal bat sortzeko gogoa izan du beti.

18. Musikari bizitzatik gutxien gustatzen zaiona

- **Erref**: GAS-015/032
- **Iraupena**: 0:03:13. **Hasi**: 00:59:17. **Bukatu**: 01:02:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

Laburpena:
Bi alde ditu bere lanak: batetik, arrakasta beharrezkoa da aurrera egiteko; bestetik, oihartzun horrek oso agerian uzten zaitu eta intimitatea ere galtzen duzu. Hala ere, musikaren alderik txarrena lanik ez izatea da. Zorionez berak ez du lan faltarik izan.

19. Ezaguna izatea batzuetan zaila da

- **Erref**: GAS-015/033
- **Iraupena**: 0:02:54. **Hasi**: 01:02:30. **Bukatu**: 01:05:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

Laburpena:
Mikel saiatzen da pertsona normala izaten baina batzuetan ez da erraza. Jendea hurbildu izan zaio istorio hunkigarriak kontatuz eskerrak ematera; horrek asko betetzen du baina bere alde arriskutsua ere badu.

20. Txaloen arriskua

- **Erref**: GAS-015/034

- **Iraupena**: 0:01:32. **Hasi**: 01:05:24. **Bukatu**: 01:06:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

Laburpena:
Apala izaten saiatzen da baina batzuetan "mozkortu" egin ahal zara txaloekin. Droga latza omen dira txaloak.

21. Harrokeriaz bizitzea porrot bat da

- **Erref**: GAS-015/036
- **Iraupena**: 0:01:51. **Hasi**: 01:07:15. **Bukatu**: 01:09:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

Laburpena:
Apala izaten saiatzen da Mikel. Harrokeriaz bizi dena baino pertsona erratuagorik ez dago, bere iritziz. Momentu batzuetan puztu zaitezke, baina berriz zeure tamainara itzuli behar zara. Bizitzan funtsezkoena pertsona ona izaten saiatzea da.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-10-12

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com